



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko otsailak 4
Ordua: 09:05 – 09:30
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Unai Gotxi Kastrexana

Ez dira bertaratu:

Joseba Elejalde Ribacoba.
Inmaculada Vivanco Retes
Jose Luis de Valle Duque

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko urtarrilaren 14an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Oharrik egin ez denez, 2016ko urtarrilaren 14an egindako saioko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (2); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4).

Onartuta geratu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Onartuta geratu da.

2. Dehesa bidean mugarrak jartzeari buruzko alegazioen ebazpena ematea eta Santa Kolomatik Braceras delakora (Dehesa bide modura ere ezagutzen da) doan bidean mugarrak jartzea onartzea.



Alkate jaunak hartu du hitza: 2016ko urtarrilaren 27an egindako saioan lurraldeko informazio-batzordeak ebatzitako irizpena irakurriko dut:

“2016KO URTARRILAREN 27AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Gaia: Santa Kolomatik Braceras delakora (Dehesa bide modura ere ezagutzen da) doan bidean mugarririk jartzeari buruzko alegazioen ebazpena.

Artziniegako Udalak 2015eko martxoaren 5eko osoko bilkuran Santa Kolomatik Braceras delakora (Dehesa bide modura ere ezagutzen da, eta 1.320 metroko luzera eta 3.960 metro koadroko azalera ditu) doan bidean mugarririk jartzeko prozedura abiatzeko hartutako akordioa ikusirik

IKUSIRIK akordio hori 2015eko maiatzaren 4an jakinarazi zitzaizela finka mugakide guztietako jabeedunei eta beste eskubide erreal batzuetako titularrei, mugarririk jartzeko espedientea abiatuko zela adieraziz.

IKUSIRIK 2015eko maiatzaren 11n Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren (ALHAO) 56. zenbakian lurrak neurtzeko lanak abiatu zirela argitaratu zela, interesdunek beren eskubideak frogatu eta defenditzeko egokitzat jotzen zituzten alegazio eta dokumentuak aurkez zituzten, beranduenez, lurrak neurtzeko lanak hasi baino egun hogeitaz lehenago.

IKUSIRIK 2015eko uztailaren 8an interesdunei jakinarazi zitzaizela titular bakoitzaren katastroko partzeekin mugan dagoen bidean lurrak neurtzeko lanak zein egun eta ordutan burutuko ziren.

IKUSIRIK 2015eko azaroaren 2an eragindako eskubideen titular guztiei jakinarazpena igorri zitzaizela eta Artziniegako Udalaren bulegoetan mugarririk jartzeko lanei buruzko espedientea jendaurrean jarri zela azaroaren 10etik aurrera eta hurrengo 15 egunetan horiek azter zituzten.

KONTUAN HARTUZ epe horretan Ezkia, S.A. eta Vicente Aguirre Cerecedak alegazioak aurkeztu zituztela.

KONTUN HARTUZ Mugarririk jartzeko lan honetako Laguntza Teknikoa ematen duen Gorosti Neurketak enpresak aurkeztutako alegazioak teknikoki argudiatu zituela.

KONTUAN HARTUZ.- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoa.

KONTUAN HARTUZ.- Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudian ezarritakoa nahiz Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean ezarritakoa.

Hori oinarritzat hartuta, 2016ko urtarrilaren 27an egindako saioan Lurraldeko Informazio-batzordeak Udalbatzari proposatu zion honako

AKORDIOA:

Lehenik.- Vicente Aguirre Cereceda jaunak 2015eko maiatzaren 11n lanak neurtzeko burutu ziren lanei jarritako alegazioak ezestea, arrazoi hauek direla medio:



1.- Vicente Aguirre jaunaren adostasunarekin eta lurrak neurtzeko lanetara bertaratu ziren guztien adostasunarekin jarri ziren 2, 3 eta 4 zenbakidun hesolak eta jabetzak ere guztien adostasunarekin irudikatu ziren.

2.- Vicente Aguirre bera izan zen bere finka (99. Partzela - Pol3) Gasteiz-Balmaseda errepidearen mugakide ez zela adierazi zuena, harrizko hormak mugatuta zegoela adieraziz.

3.- 3 eta 4 zenbakidun hesolei dagokienez, Vicente Aguirre, Jesus Canive eta Angel Aretxabala jaunek, bidea ezagutzen dutenek, antzina Salazar anaien finkara sartzeko sarbide txiki bat zegoela adierazi zuten eta Dehesa bideari dagokionez esan zutenenez, Teodoro Aguirre zenak, Vicenta Aguirreren aitak, bidea zabaldu zuen bere finkan errazago sartu eta bere ibilgailua inori enbarazu egin gabe aparkatzeko. Bertaratuen adostasunarekin hesolak ipini ziren.

4.- Mugariak jartzearen helburua bertako bi bide-bazterrak definitzea da. Hori dela eta, Salazar anaiei eta Vicente Aguirre jaunari dagokie beren finketako jabetza argitzeko egokiak diren gestioak burutzea.

Bigarrenik.- Juan Carlos Jimenez jaunak, Ezkia, S.A. enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz egindako alegazioa ezestea, izan ere, mugariak jartzearen helburua zedarritutako bidearen bide-bazterrak definitzea da, eta ez Arza aldera doan bide publikoa zedarritzea.

Hirugarrenik.- Santa Kolomatik Braceras delakora (Dehesa bide modura ere ezagutzen da) doan bidean mugariak jartzeko lanak onartzea, Gorosti Neurketak, S.C. enpresak egindako Proiektuan jasotzen den konfigurazio berriaren arabera, 2735 zenbakidun sarrera-erregistroa eta 2015eko azaroaren 30eko data duena.

Laugarrenik.- Bidearen konfigurazio berria Katastrora eramatea.

Bosgarrenik.- Akordio honen berri interesa duen orori ematea, haren aurka Udal honen aurrean, hautaz, berraztertze errekurtsoa ezar dezaketela jakinaraziz hilabete bateko epean, edo aukera dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko zuzenean jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean”.

Alkate jaunak adierazi du: hori da Irizpena. Ezer esateko baduzue.
Oharrik egin ez denez, bozkaketa burutu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioak:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (2); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

3. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 1-12 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.



Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (2); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4).

4. Udal kudeaketaren kontrola

- Joseba Vivanco jaunak hartu du hitza: Guk puntu honetan pare bat gauza esan nahiko genituzke: Batek joan den hilean erregistratu genituen bi idatzirekin du zerikusia, zeintzuen inguruan oraindik ez dugun udal gobernuaren erantzuna. Idatzietako batean Udal gobernuko batzordeak 1999ko urrian udaletxeko balkoian Euskal Presoak Euskal Herrira leloa zuen bandera bat jartzeari buruz hartutako akordioa ekarri genuen gogora. Bandera han jarrita egon da hainbat urtez eta, oker ez banago, ziklogenesiaren ondotik, haizeak eraginda edo beste arrazoi batek eraginda, bandera desagertu egin zen eta ordutik ez da berriro jarri. Udal akordio baten ondoren jarri zenez, eta akordio hori indarrean dagoela pentsatzen dugunez, bandera hori berriro jartzeko eskatu genuen.

Beste oharrak udaletxetik kirol zonaldera doan errepidean laster hastekoak diren obrei buruz aurkeztu genuen idatziarekin du zerikusia. Hala, interesgarri deritzogu, Udalak hitzaldi moduko bat deitzea, azalpenekoa, informaziokoa edo dena delakoa. Hala, obrako arduradun batek jendeari azalpenak eman ahalko dizkio, izan ere, ziurrenera jendeak jakin nahiko du obrak zer-nolako eragina izango duen ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioan, edo obrak nola gauzatuko diren ezagutu nahiko du, hau da, obraren nondik norakoak ezagutu nahiko ditu, bertatik bertara. Uste dugu garrantzitsua dela, izan ere, azken batean jendeak ere zer-nolako eraginak izango diren, lanak non hasiko diren eta bestelako alderdiak ezagutu nahiko dituela uste dugu. Horrenbestez, ikusiko da udal gobernuaren erantzuna zein den.

Alkate jaunak erantzun dio: lehenengo puntuari dagokionez, egia esan, ez dut espedientea begiratu eta ezin dizut erantzunik eman. Hurrengo bilkurarako begiratuko dut.

Bigarren puntuari dagokionez, informazio-batzordean aipatu genuen kudeaketaz arduratuko den enpresarekin izan garela, eta guk aldizka obraren bilakaeraren berri emateko eta zer-nolako eraginak izango diren jakinarazteko eskatu diogu, modu horretan, erabilgarri ditugun bideak erabiliz eragin horien berri eman ahal izan dezagun. Hamabostean behin informazioa emateko eskatu diogu, obrei buruzko parteia eman diezagutela eta hamabost egun horietan zer-nolako lanak burutuko diren adierazteko, jendea jakinaren gainean egon dadin. Proiektua aurkezteari dagokionez, egon zen aspaldi aurkezpen bat, eta web-orrialdean ere proiektua aspaldidanik dago ikusgai. Alegazioen ondorioz bidegurutzearen zonaldean aldaketa txiki bat izan da, izan ere, errepidea barnera aldera eraman da apur bat, bidegurutzera zuzen joateko, eta horixe da egin nahi duguna.

Joseba Vivanco jaunak erantzun du: lehenengoari dagokionez, hurrengo bilkuran erantzuna izatea espero dugu. Beste puntuari dagokionez, interesgarria iruditzen zaigu azalpen publiko bat ematea, ez berez proiektuari buruzkoa, hori jadanik aurkeztu baitzen, baizik eta lanei buruzko azalpenak emateko, nondik hasiko diren azaltzeko, hau da, zer-nolako eraginak izango diren errepideko trafikoan, oinezkoen zonaldean eraginik izango duten, hots, lanak zer-nola burutuko diren azaltzea. Joan den egunean aipatzen zenuen zubiaren gaiari dagokionez, jakina zubiaren gainean esku hartu egin beharko da. Jendeari interesa dakizkiokkeen gaiak ari naiz aipatzen. Gainera, Artziniega zer den aintzat hartuta lan handi bat dugu mintzagai, hots, ez da lan txiki bat edo eraikin bat zaharberritzea edo antzeko zerbait, baizik eta jendearengan eragin handi samarra izango duen obra bat da, izan ere, jendeak asko nabaritu du obra egiten dela. Pentsatzen dut zalantzak izango dituzula, hots, nondik hasiko diren, nondik jarraituko duten, noiz izango diren han edo noiz izango diren hemen edota nola burutuko diren lanak. Hau da, kontua ez da proiektua zalantzan jarriko ote den beldurra izatea, izan ere, proiektua hor dago...

Alkate jaunak hitza hartu du: ez, ez, ez, ez...

Joseba Vivanco jaunak jarraitu egin du: dagoeneko proiektua ebatzita dago, hau da, ikuspuntuaren arabera da, adibide batera, aurreko batean pertsona batek galdetu zidan ea



herriko inor ez zuten kontratatu behar obra burutzeko, eta ideiarik ere ez nuela esan nion. Ezta hori plegu batzuen barnean egiten daitekeen ere, hau da, herriko inor kontratatzeke baldintza ezar daitekeen. Eta galdetuko nuela esan nion. Esan nahi dudana da, makinak sartzen direnean, jakina tamaina handiko lan bat da, jendeak zalantzak izango dituela. Ez dakit erantzuna Udalak gizarte-sareetan ezartzen duenaren zain egon behar dela den, egia esan, nahiko mugatua da, bai, jendeari informazioa ematen zaio, baina...

Alkate jaunak esan du: jakina, zortzi hilabete iraungo dituen obra bat da. Horregatik, batzordean aipatu genuen agian aldizka obraren nondik norakoen eta bilakaeraren berri eman beharko zela.

Arkaitz San Jose jaunak galdetu du: Baina aldizka berri ematea nola definitzen duzue, hau da, WhatsApp bidez, web-orrialdetik. Batez ere, kasu honetan, izan ere,...

Alkate jauna: bada, erabilgarri ditugun baliabideekin emango dugu informazioa, sareen bidez informazioa emango dugu eta kartelak ere ipiniko ditugu.

Arkaitz San Jose jauna: hori jarraipena egiteko segur aski ongi egongo da, osagarri modura, aurrerapauso bat da. Baina nik uste dut kasu honetan presentziatzeko aurkezpen bat egitea on litzatekeela zalantza gehiago eta galdera gehiago sortuko baitira eta, ziurrenera, zerbitzuan izen emanda dagoen edo web-orrialdea behatzen duen jendearentzat Udalak egiten duen norabide bakarreko komunikazioa baino baliagarriagoa izango da. Gure Lurraldeko Batzorde batean zinegotzi modura informazioa ematen diguzun moduan, eta informazio hori eskertzen dut, gainerako pertsoneri ere eman ahal zaio. Kontua ez da zinegotzi modura ematen diguzun informaziotik harago joatea, hori diot, izan ere, ...

- Joseba jaunak hartu du hitza: eta badugu beste gai bat, ez da gai atsegina zer den kontuan izanik, baina ez dugu nahi aipatu gabe utzi, azken bilkuran, urtarrilekoan, egin genuen galdera bati buruzkoa da, izan ere, Alkateak eman zigun erantzunak min pixka bat eman zigun egia esan behar bada. Irakurri egingo dut luze samarra den arren, argi geratzea nahi baitugu:

“Sentitzen dugu esamoldea erabili behar izatea, hots, gezurrak hanka motza duela dion hori, eta sentitzen dugu esatea baina Alkateak gezurra esan zuen azken bilkuran eta joan den azaroaren 5ean egindako Gobernu Batzordean ere gezurra esan zuen eta arrazoiak azalduko ditut:

Azaroaren 5eko Gobernu Batzorde hartan, gai-zerrendatik kanpo, Alkateak jakinarazi zigun Zaharren Egoitzak eta Egunekeo Zentroak partekatzen dituzten bainugelak garbitzeko aurrekontuak eskatu direla, itxura batean, garbiketaren gaiarekin sortzen ziren arazoak zirela medio, eta obra eskaintza merkeenari esleituko zaiola azaldu zigun. Hasiera batean, ez genuen oztoporik jarri. Eta azpimarratzen dut bainugelen garbiketa eta eskaintza merkeena.

Hurrengo egunean, azaroaren 6an, Udal Sarreren Erregistroan eskaintza horietako bi sartu ziren, Comercial Villar eta Limpiezas Eskaltza. Deigarria iruditu zitzaigun beste eskaintzari zegokion dokumentua, Etxekori zegokiona, aste batzuk lehenago erregistratu izana. Azpimarratu nahi dut ez dagoela Irteera dokumenturik Udalak enpresa horiei eskaintzak igor ditzatela eskatzen duenik, ezta posta elektronikorik ere, batzuetan egoten den moduan. Horrenbestez, aurrekontu horiek Alkatetzatik telefono bidez eskatu zirela ulertu behar dugu. Ez dugu uste Alkatetzak ohikotasunez erabiltzen duen formula denik, horregatik harritu gintuen.

Azaroaren 13an garbiketa Etxeko etxeari esleitzen diola adierazten duen Alkatetzadekretua ikusi genuen Erregistroan. Berrito deigarria iruditu zitzaigun, izan ere, aurrez enpresa bakoitzak aurkeztutako eskaintzak ikusi genituen. Dokumentazioa gainbegiratu genuen eta, halaxe da, Etxekorena ez da eskaintza merkeena. 1.945 eurokoa da eta beste enpresa batek 1.799 eurokoa aurkeztu zuen. Eta ez hori bakarrik, bainugela batzuk garbitzeko lanorduak kalkulatzeko ere deigarria egin zaigu. Bi alderdi horiek idazkariari jakinarazi genizkion: lehenik eta behin, azaroaren 5eko Gobernu Batzordean, Alkateak merkeenari esleituko zitzaizola ziurtatu zuenean, bera han zelako eta, bigarrenik, besterik gabe deigarria iruditzen zitzaigulako bi ordu ematea bainugela batzuk garbitzen.

Gauzak horrela, joan den urtarrilean egindako azken bilkuran, gure taldeak esleipen horren inguruan galdetu zion Alkateari, izan ere, bilkura hartako gai-zerrendarekin batera



atxikitzen zen Alkatetza-dekretua ikustean, Zaharren Egoitzaren garbiketa orokorki aipatzen zela ikusi genuen harriduraz, eta ez bainugelen garbiketa, bere garaian azaroaren 13ko dekretuan ikusi genuen moduan. Alkateak zera erantzun zuen, eta hitzez hitz irakurriko dut, aktaren arabera, "agian gaizki ulertuko zenidaten, edo nik eman nituen azalpenak oker". Eta berriro galdetuko dugu: Orduan, bainugelen garbiketa ez da kontratatu? Alkateak berriro erantzun du, "ez, astelehenean lokal osorako laguntza gehigarri bat kontratatu da".

Gure oposizioak eskatzen duen lana burutuz, eta azaroaren 13ko dekretuan irakurri genuenaz ziur geundenez, hots, bi orduz bainugelen garbiketa zela aipagai eta ez lokalaren garbiketa orokorra, esleipenaren espedientea eskatu genuen. Eta hura ustekabea ikusi genuenean azaroaren 19ko dataz, hau da, Alkateak esleipen-dekretua erregistratu eta 6 egunera, Idazkaritzan diligentzia bat dagoela zera adieraziz, hitzez hitz irakurriko dut "kontratu-aldaketagatik aldatua, Alkatetzaren aginduz". Hau da, azaroaren 13an erregistratutako Alkatetza-dekretua azaroaren 19ko beste batekin aldatu dela argitzen da. Eta berrian garbiketa orokorra aipatzen da, astelehenetan, bi orduz. Bide batez, bitxia da espedientea barneratzen duen karpeta azalean "Zaharren egoitzako bainugelen garbiketa" irakurtzea.

Hots, eta laburbilduz. Alkateak gezurra esan zigun Gobernu Batzordean esleipena merkeenari emango zitzaiola esan zigunean, ez baita horrela gertatu. Eta Alkateak gezurra esan zigun berriro azken bilkuran "agian gaizki ulertuko zenidaten, edo nik eman nituen azalpenak oker" esan zigunean, eta ez zen soilik bainugelen garbiketa soilik kontratatu, azaldutakoari erreparatuz argi eta frogatuta geratzen den arren Gobernu Batzordean hori esan zigula, eta hori zen lehen dekretuan jartzen zuena, eta gero aldatu egin zuen, guk Idazkaritzan gure harridura erakutsi genuenean.

Egiaz, ez dugu ulertzen kontratu txiki simple bat baino ez zena, Alkatetzaren eskumenekoa, nola bilakatu den halako jardun baldarra. Eta are gutxiago uler dezakegu Alkatetzak gezurra esan diezaiokeela oposizioari, ez behin, baizik eta bi aldiz, izan ere, agintaritzaren aldetik harekiko sinesgarritasuna izan behar genuke. Egiaz sentitzen dugu, izan ere, alderdi berak azken legealdian egindako akats berdinak errepikatzen hasi da, eta hori kontuan hartuta EAJ alderdiak legealdi honetako konpromisoen grafiko koloretsuan, oposizioari banatu ziona eta Udalaren web-orrialdean jarri zuena jendeak ikus zezan, udal gardentasunaren aldeko apustua barneratzen dela, hizki larriz. Eta, egia esan, ez gara ongi hasi".

Alkate jauna: puntuari dagokionez errepikatu nahi dut bilkuran azaldu nuela planteamendua zein izan zen, eta aurrerago azaltzen da, arazo bat zegoen bainugelekin, Zaharren egoitzarako bainugela bat itxita geratzen zen, Eguneko Arretarako Landa Zentroa amaitzen zenean bainugela bakarra geratzen zen. Horrenbestez, Zaharren Egoitzako pertsonekin izan nitzenean arazoa zein zen behatzeko, ikusi genuen egokiena bi bainugelak guztiontzat irekita egotea zela, bai Eguneko Arretarako Landa Zentroa zegoenean eta bai Zaharren Egoitza zegoenean. Irizpide horren arabera, astelehenetik ostiralera bi bainugelak irekita egon behar zirela pentsatu genuen, eta garbiketa Eguneko Arretarako Landa Zentroaren barnean eman ohi den zerbitzuaren barnean sartu behar zela. Eta egia da ostiral, larunbat eta igandetan lokala ez dela Zaharren Egoitzarako eskusiboki eta, horrenbestez, garbiketa horrek gehigarri bat behar zuen. Horregatik txertatu da zerbitzu hori astelehen goizean, aipatutako bi orduekin. Eta horixe da dena, ez dira bainugelak soilik, baterako zonaldea ere garbitu egin behar da, baterako zonalde hori ere erabili egiten baita. Eskaintza merkeena ez izateari buruz, eskaintza orduka merkeena zen, baina gero zenbaketa egitean ez zen horrela ateratzen, eta Etxeko enpresaren alde egitea erabaki dugu ez dagoelako aparteko aldea, kontratu txiki bat da, eta astelehenetik ostiralera garbiketa burutzen duen enpresa bera da. Hala, pentsatu genuen egokiena astelehenetik ostiralera garbiketa egiten duen enpresa bera izatea zela astelehenean garbiketa gehigarria egingo zuena, horixe da.

Joseba Vivanco jaunak erantzun dio: sentitzen dut Iñigo, baina "Mandoa, nor duk aita? Bordako behorrik ederrena ama..." hots, ezin dira erantzun horiek eman. Guk ez dugu zalantzan jartzen garbitzearen kontua, kontratuarena, egin behar dena egin dadila. Berriro diot, zalantzan jartzen duguna egin den baldarkeria da, eta ez dugu ulertzen zergatik, izan ere, kontratu txiki bat zen, non Alkate modura egokitatzat jotzen zenuen enpresari ematea erabaki zenezakeen, azalpen



horiek ematen eta gero beste batzuk ematen ibili beharrik gabe, hau da, hau horrela geratzeak ez du zentzurik. Ez dugu ulertzen izapide hau guztiau, azken finean, gauza jakin honetarako enpresa onena hau dela uste dut esatea besterik ez zenuenean, eta inork ez lizuke deus esango.

Alkate jauna: bada, kontratu txiki bat zen eta enpresa bat aukeratu genezakeen zuzenean eta hiru enpresatan eskatu dugu aurrekontua.

Joseba Vivanco jaunak galdetu dio: Baina zergatik esan zenuen "Merkeenari emango diogu", merkeenari emango zitzaiola esan zenigunean, egiaz merkeenari emango ez zitzaiola zenekienean? Izan ere, eskaintzak han zenituen, ez zuen zentzurik.

Alkate jauna: bada, hasiera batean...

Joseba Vivanco jauna: ezin duzu esan, "azalpenak oker eman ditut", ez, aldaketa batzuk egin dira, izan ere...

Alkate jauna: barkatu, barkatu. Hasiera batean, nik merkeena zela esan ahal izan nuen paper gainean merkeena zelako. Baina, kontratua egitean ikusi zen prezio hori orduko zela, eta besteek hiler begirako eskaintza egin zutela, hiler begira zen ezta? Beste enpresek egindakoak (Idazkariari galdetuz).

Idazkariak azaldu du: Dagoeneko ez dut gogoan, baina astelehenaren inguruko kontua zen, besteak hiler begirakoak ziren, hile guztiek prezio jakina bat izango balute modura, eta besteek orduka egiten zuten. Hala, hil batzuetan lau astelehen zeudenez eta beste batzuetan bost, noski, ordu aldetiko alde hori zegoen.

Alkate jaunak jarraitu du: hori da. Bai

Idazkaria: Hil batzuetan gertatzen zen, ez guztietan, hileek lau astelehen zituztenean.

Alkate jauna: horixe izan zen, kalkulu-akatsa izan zen.

Joseba Vivanco jauna: ez, berriro diogu. Baldarkeria handiz egin da, ez dugu ulertzen zergatik, egiaz ez dugu ulertzen, kudeaketa arrunta zena zergatik egin den horrela, eta gero gauza bat adieraztea, berez, beste bat zenean. Bada, izan gaitzen serioak, denok baitugu hainbesterainoko seriotasuna. Galdera bat egiten badugu, erantzun diezagutela egiarekin, ez? Azkenean dena agerian geratzen da, erregistroek ez dute gezurrik esaten, eta hor guztia geratzen da gordeta. Uste dut esan dugunarekin...

Alkate jauna: bai, ez dakit, baina behin eta berriro kontu bera. Hasiera batean eskaintza merkeena zela pentsatu genuen. Eskaintzen aurkezpena ezberdina zen bakoitzean, eta kontua da astelehenetara pasatzean ez zirela lau astekoak soilik azaltzen, baziren bostekoak ere, eta horixe zen aldea. Enpresen arteko prezioak antzekoak ziren eta Etxeko enpresaren alde egitea erabaki zen hura arduratzen delako kudeaketaz astelehenetik ostiralera. Eta Etxeko enpresari zuzenean esleitzeko aukera ere bazegoen.

Joseba Vivanco jaunak aipatu du: horixe da kontua, esleitu zitekeen, baina orain hau eta hori esango diguzu, eta kontua da egia ez den erantzun bat eman diguzula, zer nahi duzu esango diguzuna egia dela sinesten jarraitzea? Edo zerbait esaten diguzun aldiro erregistrora jo behar ote dugu, egia dela berresteko. Lehen ere aipatu dut, azkenean azken legealdiko akats berak izaten amaituko dugu. Horrela da, sentitzen dut.

Alkate jauna: ez, nire ustez ez aurrekoan eta ez honetan ere.

Joseba Vivanco jauna: sentitzen dut, bai eta kito.

Alkate jauna: ez aurrekoan eta ez honetan.

Joseba Vivanco jauna: bai, bai eta bai, sentitzen dut.

Alkate jauna: Beste kontu bat da, ez dagoenetik atera nahi izatea.

Joseba Vivanco jauna: bai eta sentitzen dut.

Alkate jauna: Besterik?

Joseba Vivanco jauna: ez.

Alkate jaunak galdera luzatu du: bada, zerbait gaineratu nahi baduzue.

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko bederatzia eta berrogei minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.